

## **2014ko KONTRATAZIO-ZERRENDAK INFORMAZIO-OHARRA**

Interesatuak 2014ko aldi baterako kontratazio-zerrendan duten lekua egiaztatzen errazteko, informazio-ohar hau argitaratzen dugu, Osakidetzaaren aldi baterako kontratazio-zerrendak kudeatzeko eta osatzeko gidatzen duten arauetan oinarrituta; hau da, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuaren Administrazio Kontseiluaren 2011ko maiatzaren 9ko Akordioa (EHAA, 106 zk., 2011ko ekainaren 6a).

### **Argitalpena:**

2015eko ekainaren 1ean argitaratu dira web orrian lanpostu hutsen zerrenda, 1. lehentasun eta kategoria batzuetakoa. Bide honetatik sartu daiteke web orrian: <https://lc2014.osakidetza.net/aLC/eus/index.jsp> -> Zerrendak -> Behin-behineko zerrendak -> kategoria -> 1 lehentasuna

### **1 lehentasuneko zerrendetan onartuta izateko baldintzak:**

- 1.- Dagokion kategoriaren 2011ko oposizioaldia gaundituta izatea.
- 2.- Izena epearen barrua emana izatea (2015eko urtarrilaren 8 eta 30 bitartean).
- 3.- 2011ko EPEko oinarri orokor eta espezifikoetan aurreikusitako baldintza guztiak betetzea, hau da: dagokion kategoriaren arabera, titulazioa, it-txartelak...

### **1 lehentasuneko zerrendetako puntuazioa:**

Argitu nahi da, Kontratazioko akordioaren Laugarren Ataleko 1.1. puntuari ezarritakoaren arabera, Zerrenda berriak egiteko puntuazioa, jarraian ageri diren ataletan 2011ko EPEan emandako puntuari batuketaren emaitza izango dela, fase honetan ez delako esperientziaren atala berriz barematuko edo eguneratuko ezta atalak berriz kalkulatu ere:

- **Oposizioaldia** (azterketaren nota)
- **Esperientzia**
- **Euskara**. Euskararen atalean aintzat hartuta daude aldi baterako kontratazio-zerrendetan izena emateko azken egunera arte lortu eta egiaztatu diren hizkuntza-eskakizun guztiak.

### **Hurrenkera-zenbakia**

Osasun-eremu edo zentro bakoitzean lortutako lekua da, lanpostu hutsen zerrenda izan ala ordezkapenen zerrenda izan.

### **Zerrenden indarraldia:**

Zerrenda bakoitza indarrean sartuko da behin-behineko zerrendak web orrian argitaratutako egunaren biharamunean.

Vitoria-Gasteizen, 2015eko ekainaren 3an.